



## ERAGILEEN MAPA. EUSKADIKO ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK

EAEko Etxebizitza Politika Publikoen Eragileen Mapa zehazteko, ondorengo atalak identifikatu dira:

- 1.- EAEko etxebizitza arloko funtsezko eragileak, eremu eta programen arabera
- 2.- Eragileen eginkizunak eskumen eremuaren arabera
- 3.- Eragile nagusiak 2015eko pisu ekonomikoaren arabera
- 4.- Eragileek erosketa, birgaitze eta alokairurako sustagarrietan duten pisuari hurbilketa, eskariaren ikuspegitik
- 5.- Ondorioak

### 1.- EAEko etxebizitza arloko funtsezko eragileak, eremu eta programen arabera

Etxebizitza politikek jarduera ugari barne hartzen dituzte, etxebizitza berrien plangintza eta sustapenetik, etxebizitza eskuratzeko, edo hauen mantentze gastuei aurre egiteko, zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako laguntza ekonomikoetarako; eta politika hauen alderdi desberdinei ekiteko programa desberdinak garatzen dituzten eragile ugari ditu bere baitan.

Etxebizitzaren gastu eta inbertsioaren analisiak, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta baita EAEko Udalak, politika hauen inplementazioan lehen ordenako aktoreak direla nabarmentzen du; eta, zerga alderdiarekin batera, ekintza politikako arloan elkarri eragiten dioten etxebizitza politikak eta giza politikak bezalako bi eremuak nagusizat har daitezkeela.

#### Etxebizitzaren arloa

**Eusko Jaurlaritza**  
(Ingurumen, Lurralde  
Plangintza eta Etxebizitza  
Saila)

+

Gizarteak / Izaera  
instrumentaleko  
erakundeak / sozietateak  
Alokabide, Visesa

**Udaletxeak**

+

Izaera instrumentala duten  
udal erakundeak  
/sozietateak  
**Ensanche 21, Surbisa,  
Bilboko Udal Etxebizitzak,  
Donostiako Etxegintza,  
Bidebi, Eretza, Sestao  
Berri, Irunvi**

#### Gizarte arloa

**Eusko Jaurlaritza**  
(Enplegu eta Gizarte  
Politikako Sailak)

+

Lanbide Euskal  
Enplegu Zerbitzua  
(erakunde  
autonomia)

**Udaletxeak**

#### Jarduerak

Erosketa edo alokairu  
erregimeneko etxebizitza-parke  
publikoaren sustapena,  
alokairuaren sustapena parke  
pribatuan, birgaitzearen  
sustapena, lurzoruen  
kudeaketa/sustapena, plangintza  
eta hirigintza kudeaketa,...

#### Jarduerak

Ordainketarako/  
etxebizitzaren  
mantengurako laguntzak

#### Jarduerak

Etxebizitza  
politikak zerga-  
sustapenen bidez  
laguntzea

**Foru Aldundiak**

#### Zerga-arloa




Era berean, etxebizitza politikan bi alderdi desberdinu daitezke: bata eskaintzaren sustapenari zuzenduta, sektore laguntzen bitartez edota beste esku-hartzeen bitartez (herri etxebizitzaren sustapena nabarmentzen delarik); eta bestea, herritarrei emandako laguntza zuzenen bitartez, eskaera sustatzeari zuzenduta edota etxebizitza eskuratzeko zein bere mantenguari zuzendutakoa.

Egindako analisi kuantitatiboa eskaerarekin lotutako sustapenean ardaztu da, nahiz eta baita eskaintza kontuan hartu izan den.

**Etxebizitza politikako esku-hartze ildo nagusien programak, bultzatzen dituzten eragileen arabera**


### A.- Eskaintzaren Alderdia<sup>1</sup>



<sup>1</sup> Sektoreari zuzendutako laguntzak eta, alokairuan zein erosketan, eskaintza sustatzeari eta etxebizitza eskuragarriagoak lortzera zuzandutako beste jarduketak batzuk,



## Eskaeraren Alderdia<sup>2</sup>



<sup>2</sup> Biztanleriaren etxebizitzaren eskaera bideragarri egiteko laguntzak



## 2.- Eragileen eginkizunak eskumen eremuaren arabera

Eskematikoki ikusita, ondoren jarduketa arlo nagusiak adierazten dira administrazio mailaren arabera.

### 2.1.- Eremu autonomikoa / Eusko Jaurlaritza

#### • EUSKO JAURLARITZAREN INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

Etxebizitzaren eremua, Etxebizitzaren Sailburuordetzaren menpe dauden bi zuzendaritza funtzioaletan antolatzen da: Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza eta Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza, Jaurlaritzak diseinatutako etxebizitza politikak burutzeko eta kudeatzeko ardura dutenak. Etxebizitza arloan maila autonomikoko arau nagusiak ezartzeko eginkizunaz gain (2013-2016 Zuzendaritza Planean definituta dagoen zeregina), bere jarduketa ondorengo gai nagusietan ardaizten da:

- BPEa sustatzea, alokairuan batez ere, merkatu askean etxebizitza eskuratu ezin dutenei etxebizitza lortzea laguntzeko asmoarekin.
- Birgaitzearen sustapena: lehentasunez eraikitako parkearen gain jarduten, eta birgaitzea eta hiri -berroneratzea eta -berrikuntza sustatuz, guzti hau etxebizitza arloan jarduten dituzten instituzio eta eragile guztiekin modu koordinatu eta adostuan

Etxebizitzaren Plangintza eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren barruan, Etxebide da herritar guztiek babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko aukera berdinak dituztela bermatzeko tresna, eta maila operatiboan etxebizitza babestuen eskaria bideratzen du etxebizitzaren eskatzaileen erregistroaren bitartez.

Horretaz gain, Departamentuak SOZIETATE publikoez (Alokabide eta Visesa) baliatzen da, bere erakunde egitura lurzoru eta etxebizitzarekin lotuta dauden etxebizitza politika batzuk modu eraginkorragoan garatzea ahalbidetzen duelarik.

#### • EUSKO JAURLARITZAREN SOZIETATE PUBLIKOAK: VISESA ETA ALOKABIDE

##### ALOKABIDE

Alokairu politikaren bidez etxebizitzaren funtzio soziala garatzearen arduraduna den sozietate publikoa. Egun, ia 12.000 etxebizitzadun parkea kudeatzen du, propioak zein beste programa edo erakundetakoak direnak. Bere helburua hurrengo urteetan Euskadiko babestutako parke osoa gehitzea da.

##### VISESA

Eusko Jaurlaritzako sozietate sustatzaile publikoa. Kutxabank eta Laboral Kutxaren bere akziodunerian partaidetza dute.

Babes ofizialeko etxebizitza berriak, alokairuak, tasatuta eta zuzkidura bizitokiak sustatzen ditu, bere fase guztietan: lurzoruaren kudeaketatik entregara arte. Zerbitzu integrala eskaintzen du, eta EAEn eraikuntzaren berrikuntza sustatzen du.

#### • LANBIDE

Gaur egun, etxebizitzaren giza-politikaren eragile zentrala da, DBEa jasotzen duten eta alokairuko erregimenean dauden pertsonak gozatzen duten Etxebizitzaren Prestazio Osagarria kudeatzen baitu. 2008ko atzeraldiaren inpaktuarekin honen hedaketa oso nabarmenki areagotu da, EAE osoan 30.000 bizikidetz-unitate ingurura iritsi arte.



## 2.2.- Lurralde Historikoaren arloa/ Foru Aldundiak

Foru Aldundien esku-hartzea etxebizitza arloan, funtsezkoa da etxebizitza eskuratzea edo birgaitzea planteatzen ari den biztanleriari zuzenduta dagoen pizgarri-sisteman..

Bere esku-hartzea zerga-politikan ardazten da, PFEZn artikulatutako alokairu, eskuratze edo birgaitze kenkariekin lotuta, beraz ez da gastu efektiboa, baizik eta zerga-sarreraren murrizketa bat.

Estatuko beste AAEEetan gertatu denaren ez bezala, (EEBren txostena ikusi<sup>3</sup>), 2012tik politika publikoetan ezarritako aurrekontuen murrizketaren testuinguruan, Foru Aldundiek kenkarien sistema mantendu dute.

## 2.3.- Udalak eta Udal Sozietate Publikoak

Udalek etxebizitzaren sustapena eta erosketa, alokairu edo birgaitzearen inguruan programa eta sistema ugaritasun handia diseinatu eta inplementatu ditzakete. Baina, krisialdiaren markoan, udal-politikak finantzatzeko izan dituzten zailtasunak direla eta, azken urteetan euren helmena murriztu dira.

Lanbidek DBE/EPO berarengan hartu zituenetik, etxebizitza arloko laguntza sozialen inguruan, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak soilik kudeatzera aldatu da. Alokairuaren ordainketan laguntzen dutenak, zein etxebizitzatik kanpo botatzearen, pobrezi energetikoaren, etab.-en arriskuan dauden familiek hipotekak ordain dezaten.

Gainera, azken hamarkadetan, EAEko udal nagusienek sozietate publikoak eratu dituzte etxebizitzaren eremuko programak sustatzeko eta kudeatzeko, ondorengo mapan adierazten den bezala birgaitze politiken inguruan garrantzi nabarmena dutelarik.

### BIZKAIA

- BIDEBI BASAURI, S.L.
- ERETZA
- SESTAO BERRI 2010
- SURBISA
- BILBOKO UDALEKO ETXEBIZITZAK

### GIPUZKOA

- DONOSTIAKO ETXEGINTZA
- IRUNVI

### ARABA

- 21 ZABALGUNEA

<sup>3</sup> [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_fiscal16/es\\_ovv\\_admi/adjuntos/fiscal\\_16.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_fiscal16/es_ovv_admi/adjuntos/fiscal_16.pdf)



## BIZKAIA

### BIDEBI BASAURI, S.L.

Basauriko udal-sozietatea, kapital publikoduna soilik, hirigintza planteamenduaren garapen integralean eta betearaztean espezializatua.

Erakundeak, bere helburuen artean, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrean, Plan partzialetan, aurreikusitako hirigintza eragiketen kudeaketa eta betearaztea ditu eta, baita orokorrean, bere hirigintza politikoa garatzen duen birtean, Udalak edo bere mendekoak diren organismo eta erakundearen planak, programak eta jarduketak adierazten dutena.

Baita babes publiko, aske edo salneurri mugatuko eta edozein titulurekin eskuratutako lurraldeetan kokatutako eraikuntza, etxebizitza eta edo beste motatako alojamendu, lokal edo aparkalekuen sustapena, eskuratzea, eraikuntza eta kudeaketa bilatzen du. Eraikitako ondareak alokatzeaz eta birgaitzeaz arduratzen da Bidebi ere.

### ERETZA

Barakaldoko Udaleko Hirigintza-Kudeaketa Sozietatea, paisaia aldatzeko eta udalerrira birmoldatzeko eraturia izan dana. Erosketan zein alokairuan dauden Babes Lokaleko Etxebizitzaren (BLE) sustapena eta narriatutako hiri nukleoak hobetu eta babestea dira bere helburu nagusiak. Honetarako, lurzorua Udaleko Hirigintza Planteamenduaren garapenerako prestatzean eta programazioaren sustapenean ardatzen du bere jarduerak, eta baita hirigintza plan eta proiektuen eraketa, eta birgaitze arloko aholkularitza osoan.

### SESTAO BERRI 2010

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko %50ean parte-hartua eta beste %50ean Sestaoko Udalerririk parte-hartutako Sozietate Publikoa. Sestaon giza-hirigintzaren biziberritzea eta birgaitze, ostatu ematea eta alokairuaren kudeaketa programetan parte-hartzea du helburutzat, Txabarri, Urbinaga, Simondrogas, Rivas eta Los Baños auzoen hirigintza eta giza biziberritzean bereziki ardatzuz.

### SURBISA

SURBISA (Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Sozietatea – Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao) 1985an eratutako udal sozietatea da, bere hasierako helburua Bilboko Alde Zaharraren eremuan hirigintza birgaitzeko jarduerak garatzea izan zen.

1994an, Bilbo Zaharrera hedatu zen eragiketa eremua; eta 2002an trenbideetako langileen auzora. 2005ean, bere jarduerak hiri osora hedatu zen.

Eratu zenetik, Surbisak birgaitze plan berezietan adierazten diren ekipamendu, toki libre, urbanizazio, etb-en birgaitze lanen proiektua eta garapenaz arduratzen da. Birgaitze pribatua ere sustatu du, etxebizitzaren birgaitze 20.000 jarduerekin eta ia 15 milioi euroko inbertsioarekin.

### BILBOKO UDALEKO ETXEBIZITZAK

UDALEKO ETXEBIZITZAK babestutako etxebizitza sustatzeko politika garatzeko Bilboko Udalaren tresna aktiboa da. Bere helburua, Bilboko pertsona guztiek, behar izan ezker, baldintza duinetako etxebizitza erraztea da, alokairua lehentasuna izanik. Helburu honekin, Udaleko Etxebizitzak lurzoru eta higiezinaren merkatuan esku hartzen du etxebizitzak sustatu eta lortzeko.

Esku-hartze programa sozio-komunitarioak ere garatzen ditu, bat-bateko etxebizitza gabezia elokairuzko etxebizitzaren aldaketa eta ordezkio bizitokia ematea. Udal Sozietateak etxebizitza berriak eraikitzen eta sustatzen ditu, eraikitako pisuak erosten ditu eta eskuratze akordioak sinatzen ditu. Gainera, Udaleko higiezinaren parkea osatzen duten etxebizitzaren eta lokalen alokairuaren administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen da; honen mantengua eta birgaitzea, eta zenbaitetan salmenta, diru-sarrerak etxebizitza babestuen parke berriaren sustapenean berrinbertitzeko.



## GIPUZKOA

### DONOSTIAKO ETXEGINTZA

Alokairuzko etxebizitza eta garajeen sustapenaz eta kudeaketaz, gazteen eta heldu autonomoentzako apartamentuen sustapenaz arduratzen da; eta baita hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzea ahalbidetzen duen programa batez edota emakidazko udaleko lurzoruetan eraikitako sustapen pribatuko etxebizitzaren zozketaz. Donostiako eraikuntzak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak kudeatzen ditu baita, komunitate zein partikularrentzat.

### IRUNVI

IRUNVI Irunen etxebizitza publikoa sustatzeko jaio zen. Bere egiturak jarduerak ahalik eta gehien bizkortzea ahalbidetzen dio, eta hirigintza kudeaketa garatzeaz eta beharrezkoak diren lurzoruen negoziaketaz gain, etxebizitzaren eraikuntza sustatzen du baita, erosketan motan zein alokairuan. IRUNVIk heldu autonomoentzako apartamentuak, aparkalekuak eta Iruneko alde zaharren birgaitzea sustatzen ditu ere.

## ARABA

### 21 ZABALGUNEAK

Vitoria-Gasteizeko udal hirigintza sozietatea, hiriaren XXI. mendeko hedaketa sustatu eta kudeatzeko eratua. Udaleko lurzoruaren ondarea administratzea du helburutzat, plangintza hirigintza kudeaketa eta beharrezkoak diren lanez gain. Gainera, 21 Zabalgunek eta Udalak elkarrekin lan egiten dute eta lurralde eta ingurumen antolamenduko hirigintza arloko beste zenbait administrazio edo ekimen pribatuei baita laguntzen die.

## 3.- Eragile nagusiak 2015eko pisu ekonomikoaren arabera

### 3.1.- Ikuspegi orokorra

Etxebizitzaren politika ekonomikoaren alderdira soilik begiratuta, analisisan zerga-gastua sartuz, 2015ean Foru Aldundiak izango lirateke eragile nagusia. **Honela, 2015ean etxebizitzarekin lotutako zerga-gastuak (375 milioi euro) Eusko Jaurlaritzak etxebizitza inguruko ekitaldi bereko gastu bateratua bikoizten du (184 milioi euro) eta nabarki gairatzen du Udalen guztirako aurrekontua eta baita EAEko erakunde publikoena, 2015ean etxebizitza eta hirigintzan guztirako aurrekontu likidatua kontuan izanda.**

Eusko Jaurlaritza

282.090.694

Foru Aldundiak

400.514.000

Udalak

306.711.352



## 3.2.- Administrazio mailaren arabera banatutako datuak

### EUSKO JAURLARITZA

|                    |                                                                             |
|--------------------|-----------------------------------------------------------------------------|
| <b>184.600.000</b> | Etxebizitza taldearen gastu bateratua<br>(Sozietate Publikoak barne)        |
| <b>97.490.694</b>  | Sailaren etxebizitzarekin lotutako gastua (EPO + GLL<br>alokairua/mailegua) |
| <b>282.090.694</b> | <b>GUZTIZKO GASTURA HURBILKETA</b>                                          |

Iturria: "Alokairu politikaren bilakaera  
EAEn, 2015" eta "Etxebizitza Politiken  
Ebaluazio Integralaren Txostena,  
2015" Etxebizitzaren Euskal  
Behatokiaren txostenak.


### FORU ALDUNDIAK

|                    |                                                                     |
|--------------------|---------------------------------------------------------------------|
| <b>25.514.000</b>  | Etxebizitza eta hirigintzan likidatutako aurrekontua <sup>(1)</sup> |
| <b>375.000.000</b> | Zerga-Gastua (PFEZren kenkariak)                                    |
| <b>400.514.000</b> | <b>GUZTIZKO GASTURA HURBILKETA</b>                                  |

Iturria: "EAEko etxebizitzetzi dagokien  
zerga-politika: zerga-gastuaren  
helmena eta eragina" Etxebizitzaren  
Euskal Behatokiaren txostena eta  
Funtzio Publikoak eta Ogasun  
Ministerioaren finantziazio autonomiko  
eta tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren  
Udal Sozietateen aurrekontuen  
datuak.

2015eko datu banatuak ez badaude ere, zerga-  
gastua Lurraldeko 2013an izan zuen banaketa  
portzentuala aurkezten da.

Fuente: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa, Euskal  
Ogasunaren Txosten Bateratua 2014.



### TOKIKO ADMINISTRAZIOA

|                    |                                                                  |
|--------------------|------------------------------------------------------------------|
| <b>272.333.000</b> | Udalak – etxebizitza eta hirigintza <sup>(2,3,4)</sup>           |
| <sup>(5)</sup>     | Udalak – Gizarte Arloa → GLL                                     |
| <b>45.562.659</b>  | Enpresa-Erakunde Publikoak                                       |
| <b>-4.519.306</b>  | Udalen transferentziak Enpresa-Erakunde Publikoei <sup>(6)</sup> |
| <b>306.711.652</b> | <b>GUZTIZKO GASTURA HURBILKETA</b>                               |

Iturria: Funtzio Publikoak eta Ogasun  
Ministerioaren finantziazio autonomiko  
eta tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren  
Tokiko Erakundearen aurrekontuen  
datuak eta etxebizitzaren arloko udal  
sozietateen Aurrekontuak eta Urteko  
Kontuak.

Oharrak:

- (1) Udal Administrazioaren aurrekontu likidatuarekin bateratua.
- (2) Ez dago Arabako Udalen daturik.
- (3) Finantziazio Autonomikoaren Udal Erakundearen Aurrekontu datuek 2010. urtetik aurrera ez dituzte Enpresa-Erakunde Publikoen datuak barne hartzen. Edozelan, Bilbao Etxebizitzak erakunde autonomoa da, eta kasu honetan datuak Ministerioak eskaintzen dituen datuak bai daude. Horregatik, ez da kontuan izan Enpresa-Erakunde Publikoen atalean.
- (4) Finantziazio Autonomikoaren Idazkaritza Nagusiak Tokiko Administrazioak osatzen dituzten erakunde desberdinen datu bateratuak eskaintzen ditu (Foru Aldundiak, Udalak, Organismo Autonomoak,...), baina ez dira Eusko Jaurlaritzako gastuarekin bateratu, erraztasunez identifikatu ahal izan den partidaren bat izan ezik (Sestao Berri,...)
- (5) Udalek 2015ean 6.428.274 € eman zituzten Giza-Larrialdi Laguntzetarako, baina datu hauek ez daude laguntza motaren arabera banatuak.
- (6) Datuak bateratzeko, Udalek Enpresa-Erakunde Publikoei egindako transferentziak kendu dira, Irunvi, datu hau Irungo Udalak bateraturik eskaintzen duelarik.







## 4.- Eragileek erosketa, birgaitze eta alokairurako sustagarrietan duten pisuari hurbilketa, eskariaren ikuspegitik

Etxebizitzaren eskari eta birgaitzera zuzendutako programak eta laguntza ardatzei begiratuz, eragile bakoitzak intzidentzia desberdina duela nabaritzen da, 2015eko datuek adierazten duten lez.

### EUSKO JAURLARITZA ETA PARTE-HARTUTAKO SOZIETATEAK


Eusko Jaurlaritzaren 2015eko etxebizitza programa eta laguntzen %88a, alokairua bultzatzen eta baztertze arriskuan dauden pertsona errentariei zuzendutako EPO laguntzei bideratu da, 2015ean DBE jasotzen duten pertsona eta familien alokairuak ordaintzako, kopurua 88 milioi euro izanda.



### FORU ALDUNDIAK

2015eko hiru Foru Aldundien etxebizitza inguruko kenkarietara lotutako zerga-gastua 375 milioi eurokoa izan da. Sustagarri hauen gehiengoak etxebizitzak eskuratzeko eta berme hipotekariodun maileguen bidez erositako etxebizitzaren ordaintzarako izan dira.

Horrela, 2015ean Foru Aldundien zerga-gastuko hiru eurotik bi, lehen etxebizitzaren erosketaren sustapenara bideratu ziren, %18,5a alokairurako izan zelarik eta %15,1a etxebizitzaren birgaitzerako kenketetarako.





## UDALAK ETA TOKIKO SOZIETATEAK: ADIBIDE ADIERAZGARRIAK

Eskuragarri dagoen informazioak ez du eskaria sustatzera zuzenduta dauden ekimen desberdinei buruzko Tokiko Administrazioen gastu orokorrera hurbilketa egitea ahalbidetzen. Hala ere, Udal Sozietate Publikoek argitaratutako informazioaren analisiak, programa eta sustagarriak birgaitzera zuzentzeko joera dutela adierazten dutela esan daiteke.

Birgaitzera zuzendutako aurrekontuen adibide batuk:

- { Donostiako Etxegintzak kontzeptu honetan 1.750.000€ adierazi zituen 2015ean.
- { Surbisaren aurrekontua 1.335.000€ ingurukoa izan zen 2015ean.
- { 21 Zabalgunearen aurrekontua 2.500.000 €-tara igo zen 2016ean.

Bestalde, Udal batzuek zenbait kolektibo zehatzi alokairuaren ordainketan laguntzeko zenbait laguntza dituzte, baina egindako azterketak esku-hartze ardatz hau udal mailara gutxiengoa dela adierazten du, edo banatutako baliabideei deritzenez behintzat, eta ez dago honi buruz informazio zehatzik.

## 5.- Ondorioak

- 2015ean etxebizitza eta hirigintzara bideratu ziren ia 1.000 milioietatik (udalen laguntzak kontuan izan gabe), herritarrei laguntza edo zerga sustagarri moduan zuzenean heldu zaienaren ehunekoa %50a baino zerbait handiagoa da.
- Eragilearen arabera, ikuspegi kuantitatibotik sustagarri nabarmenenak Foru Aldundien PFEZren kenkariak izan dira (375,6 milioi), dena den, beharrezko da hau administrazioaren diru-sarreraren murrizketa dela adieraztea, eta ez gastu efektiboa. Sustagarri hauekin lotura duten hiru eurotatik bi erosketara bideratzen dira, alokairuaren %18arekin eta birgaitzearen %15arekin alderatuz.
- Esku-hartze ardatzaren arabera, laguntza eta sustagarrien gehiengoa etxebizitzaren erosketa sustatu/ordaintzera zuzendu da (250,6 milioi), nahiz eta ardatz honen baitan, partidarik garrantzitsuena aldundien zerga-gastuaren inguruan egon (249,6 milioi).
- Gastu efektiboari deritzenez, baliabideen gehiengoa alokairura bideratu da (alokairuaren ordainketarako laguntzak), besteen artean, BPE jasotzen dutenen eta alokairua ordaintzeko zailtasun nabarmenak dituzten kolektiboek zuzendutako Etxebizitzarako Prestazio Osagarri lotutako partidak nabarmentzen direlarik (88,5 milioi). Era berean, Bizigune programa sartuta dago ere (19,3 milioi), zuzenean baliatutako etxebizitzaren jabeek ordaintzeko erabiltzen dena.
- Jarduketa ildoekin eta eragile desberdinen funtzioekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak eta Udalek eskumen zabalak dituzte, zenbait kasutan administrazio maila bitan programa/ekimen antzekoak bikoizten direlarik, eta ondorioz, koordinazio eraginkor baten beharra nabarmenduz (Etxebizitzaren Zuzendaritza Planean, 2013-2016, adierazten den bezala).
- Bestalde, nahiz eta Udalen etxebizitza arloko Etxebizitza eta Hirigintza eskumenak zabalak izan, hauek kudeatzeko dituzten baliabideak nabarmenki desberdintzen dira, gehien bat hauen tamainaren arabera. Zentzu honetan, dimentsio handieneko Udalak baliabide eta egitura ugariak dituzte, etxebizitza eta hirigintza politiken plangintza eta ekimenean autonomi maila handiagoa emanez; tamaina txikiagokoetan, bestalde, administrazio publikoen taldearen laguntza beharrezkoagoa da.
- Foru Aldundiei deritzenez, eskaria sustatzera zuzenduta dauden etxebizitza politikak laguntzera ardatzen dute euren eginkizuna, ohiko etxebizitzaren eskuraketa, alokairu edo birgaitzean PFEZak barneratzen dituen zergen kenketaren bitartez.



## Iturriak

### Etxebizitzaren Euskal Behatokia

- Etxebizitza politiken ebaluaziorako txostena 2015  
[http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_administracion\\_evpol\\_15/eu\\_ovv\\_admi/adjuntos/ebaluazioa\\_etxebizitza\\_2015.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_administracion_evpol_15/eu_ovv_admi/adjuntos/ebaluazioa_etxebizitza_2015.pdf)
- EAEko etxebizitzetzi dagokien zerga-politika: zerga-gastuaren helmena eta eragina  
[http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_fiscal16/es\\_ovv\\_admi/adjuntos/fiscal\\_16.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_fiscal16/es_ovv_admi/adjuntos/fiscal_16.pdf)
- 2015eko Alokairuaren Politikaren ebaluazio txostena  
[http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_alquiler2015/eu\\_ovv\\_admi/adjuntos/evaluacion\\_alquiler\\_2015\\_eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_alquiler2015/eu_ovv_admi/adjuntos/evaluacion_alquiler_2015_eu.pdf)

### Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa

- Tokiko Sozietateen Aurrekontu Datuak  
<http://serviciotelematicosext.minhap.gob.es/SGCAL/entidadeslocales/>

### Tokiko Erakundeak

- Bilboko Udaleko 2015eko Aurrekontuak  
[http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1279138061952&language=eu&pageid=1279138061952&pagename=Bilbaonet%2FPPage%2FBIO\\_contenidoFinal](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1279138061952&language=eu&pageid=1279138061952&pagename=Bilbaonet%2FPPage%2FBIO_contenidoFinal)
- Vitoria-Gasteizeko Udaleko 2015eko Aurrekontuak  
[http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u\\_526719c0\\_1588f9a877e\\_7e06](http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u_526719c0_1588f9a877e_7e06)
- Donostiako Udaleko 2015eko Aurrekontuak  
<http://www.donostia.eus/ataria/web/aurrekontuak/2015-urtea>
- Barakaldoko Udaleko 2015eko Aurrekontuak  
<http://www.barakaldo.org/portal/eu/web/economia-y-hacienda/presupuesto2015/municipal>
- Iruneko Udaleko 2015eko Aurrekontuak  
[http://www.irun.org/caste/3ayunta/presup\\_2015.asp](http://www.irun.org/caste/3ayunta/presup_2015.asp)
- Kudeaketa txostena Surbisa 2015  
<http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/eu/ambitos/entidades-municipales/surbisa/1272991012979/1272991013743/1279126080862>
- 2015eko Jarduera-txostena Bilboko Udal Etxebizitzak  
<http://www.bilbao.eus/servlet/Satellite/vmm/eu/nortzuk-gara/gure-historia>
- Bidebi Basauri 2015eko Jarduketan memoria  
[http://bidebi.basauri.net/sites/default/files/archivosSubidos/memoria\\_de\\_actuaciones\\_eu.compressed.pdf](http://bidebi.basauri.net/sites/default/files/archivosSubidos/memoria_de_actuaciones_eu.compressed.pdf)
- Sestao Berri 2015eko Memoria  
[http://www.sestaoberri2010.com/wp-content/uploads/2016/12/memoria\\_15\\_euskera.pdf](http://www.sestaoberri2010.com/wp-content/uploads/2016/12/memoria_15_euskera.pdf)